

Edozelan be, nahi izan ezkeru, aurreko parrafoan esaten jatzun administrazioarekiko auzi-errekurtsora jo aurretik, aukera dozu, jakinerazpen hau jasoten dozun egunaren biharamonetik hasi eta hilabeteko epean, berraztertze-errekurtsoa aurkezteko ebazpena emon dabean organoaren aurrean.

Hori guztia, gorago aitatu diren urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 116. eta 117. artikulua eta kidekoetan ezarritakoa beteaz, eta zure eskubideak zaintzeko egoki deritoxozuzan egintza edo errekurtsioak aurkezteko eskumena ezertan gutxitu barik.

Abadiñon, 2009ko apirilaren 14an.—Alkateak

(II-3207)

## Arrietako Udala

IRAGARKIA

2009ko martxoaren 26an Arrietako Udalbatzarrean behin betiko onartutako eta 2009ko apirilaren 16an 57 zenbakidun B.A.O. argitaratutako Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administrazioak erabiltzea arautzen duen Ordenantzaren 2 epigrafean, Udal Hilerria, akats bat dagoenez, bere testu osoa iragartzen da egindako aldaketak zuzendu ostean:

**Zerbitzuak eskaini eta jarduera administrazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak**

*2 Epigrafea, Udal hilerria:*

- Nitxoan emakida 50 urterako: 750 €.
- Nitxoan emakida hondakinak gordetzeko 50 urterako: 150 €.
- Nitxoan arrendamendua 10 urterako: 200 €.
- Lursailean arrendamendua 10 urterako: 200 €.

*Ehorzketak:*

- Ehorzketak nitxoetan: 100 €.
- Hondakin edo errautsen ehorzketa nitxoetan: 100 €.
- Ehorzketa lursailean 10 urterako: 200 €.

Aldaketak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzen direnetik aurrera izango dute eragina eta indarrean jarraituko dute harik eta aldatzeko edo indargabetzeko erabaki hartu arte.

Arrietan, 2009ko apirilaren 20an.—Alkatesa

(II-3187)

## Galdakaoko Udala

UE-US-1 BIRZATIKATZE PROIEKTUAREN ALDAKETA

2009ko apirilaren 7ko 913 zenbakidun Alkate Ebazpenez, UE-US-1 Birzatiakate Proiektuaren Aldaketari hasiera eman zaio.

Jendaurreko informaziorako izapidean jartzen da 15 eguneko epealdian.

Espediente Udalaren Hirigintza Arloan dago, kontsulta egin nahiz izanez gero.

Galdakaon, 2009ko apirilaren 14an.—Alkatea

(II-3234)

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrán Vds. interponer recurso de reposición ante el mismo órganos que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 116, 117 y concordantes de la Ley 4/1999 de 13 de enero, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estime oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

En Abadiño, a 14 de abril de 2009.—El Alcalde

(II-3207)

## Ayuntamiento de Arrieta

ANUNCIO

Una vez detectado error en el epígrafe 2. Cementerio municipal de la Ordenanza reguladora de las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas, aprobada definitivamente por el Ayuntamiento de Arrieta en sesión plenaria celebrada el día 26 de marzo de 2009, publicado en el B.O.B. n.º 57, de fecha 16 de abril de 2009, se procede a la publicación del texto íntegro subsanado de las modificaciones realizadas:

**Tasas por prestación de servicios y realización de actividades administrativas**

*Epígrafe 2, Cementerio municipal:*

- Concesiones de nichos por período de 50 años: 750 €.
- Concesión de nichos para restos por período de 50 años: 150 €.
- Arrendamiento de nichos por período de 10 años: 200 €.
- Arrendamiento de parcela de tierra por período de 10 años: 200 €.

*Inhumaciones:*

- Inhumación en nicho: 100 €.
- Inhumación de nichos para restos y /o cenizas: 100 €.
- Inhumaciones en parcela de tierra para 10 años: 200 €.

Las modificaciones surtirán efectos y comenzarán a aplicarse a partir de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y permanecerán en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Arrieta, 20 de abril de 2009.—La Alcaldesa

(II-3187)

## Ayuntamiento de Galdakao

MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN DE LA UE-US-1

Por Resolución de la Alcaldía número 913, de 7 de abril de 2009, se ha aprobado inicialmente la modificación del Proyecto de Reparcelación de la UE-US-1.

Se somete el mismo a trámite de información pública por período de 15 días.

El expediente se encuentra para su consulta en el Área de Urbanismo del Ayuntamiento.

En Galdakao, a 14 de abril de 2009.—El Alcalde

(II-3234)